

Urak, hitzak, zuhaitzak, ispiluak

Irati Majuelo

Amatasunari buruzko poema liburua da *Etxeko urak*. Baina azalekoa litzateke irakurketa horretan geratzea, izan ere, amatasunak ertz ugari dituen heinean, sakona da Leire Bilbao proposatzen duen ozeanoa: norbere izatean sortzen diren ardatz eta muga berriak, besteengan aurkitzen diren juzkuak eta ereduak, heldutze etengabea, hizkuntzari eta idazketari buruzko gogoetak. Izan ere, ama izateaz gain, alaba izateaz eta amama-alaba harremanez ere ari da poeta.

Liburu honetan Bilbao ohikoa duen iruditeria eta sinbologia aurki daiteke. Izenburutik hasi eta azken poemaraino urak gidatuko du irakurlea, eta harekin batera dakartzaz ibaiak, harroak, arrainak, kresala, eta idazlearen

ezinbesteko inguru den itsasoa. Uholdeak eta lehorteak, arrain jaiotzeak eta platerean zerbitzatutakoak; egunerokoa ez baita itsasaldi bare izaten. Alabaina,



'Etxeko urak'

Idazlea: Leire Bilbao. **Argitaletxea:** Susa.

honako honetan bestelako paisaiak ere gailentzen dira gorputz erditu, berritu, islatuetan: basoak, zuhaitzak, adarrak, txoriak, habiak. Etxeko zementu artean itxia dauden edo euren burua babesten duten piztiak, bizitzaren basatasunari nola egunerokotasunari zilbor hestez lotuak.

Poesia intimista da oso, etxeko sukaldetik, norbere azaletik seme-alabei, bere buruari eta amari begira ari dena. Hala ere, emakumearen gorputzetik hitz egiten duenetan, ni-tik kolektibora joan-etorriak egiten dituen ahots bat igar daiteke, bada aldarrikapena eta bada gainetik berezkoa ez duen azal bat erazi nahia. Detaileak ez dira inoiz menturaz agertzen Bilbaoren poesian, eta liburu hau detaile txikiak beteta dago.

Amatasuna gai zabala izanagatik, poema liburu honetan monomatematikogea gerta liteke zenbaitetan. Askotan irudi du bere unibertsoan ama izatea baino ez dela existitzen, mundutik at balego bezala: kanpoko mundua ama izatera bideratzen duten usuetan baino ez da ageri. Amatasun ekidinezinaren kutsu esentzialistan, ama-semearen lotura

banaezinean, ama bizi-emalearen irudian ardatzuta, epel uzten dute irakurlea zenbait poemek, ikasiegi dugun diskurtso baten murgilduta. Hori dela eta, indar gehiago dute idazleak bere burua kuestionatzen idatzitakoek, gorputzutako kontraesanak edo amatasunaren gordina erakusten dutenak. Amatasun propio bat ezin eraikiaren minean galtzen da maiz, baina hori du liburua ahotsik fuertea. Izan ere, mende errepikatzen diren keinu, erabaki eta arduen kate baten parte sentitzen da, eta horrek bere amarekiko duen harremana birplantatzen darama: «EZ NAIZ NIRE AMA BEZALAKOA IZANGO. / Baina ama izatea beste amak imitatzea da».

Amata izatea, nor izatea bezala, prozesu gorabeheratsua izanik, bide horren maldak eta zelaia islatzea da Bilbaoren ekarpena: ni-ak ez du beti amatasunarekiko irizti bera mantentzen, eta horrek ematen dio bildumari dinamikotasun puntu bat. Horrek eta jadanik azaletik muineraino barneraturik duen sinbologia oporak, irudi ederrak egiteko gaitasuna eta hizkuntza propioa eskaintzen diona.



'Azken dantza New Yorken'

Idazlea: Lur Gallastegi. **Argitaletxea:** Elkar.

Inge da kontakizun honetako protagonista: Gasteizen jaio, familiarekin Bilbora lekualdatu eta New Yorkera helduko da dantza lehiaketa bat irabazi ondoren. Maleta ilusioz beteta abiatuko da, eta han jakingo ditu gurason iraganeko kontuak, lehen amodioarenak eta beste asko.



'Hans eta igela'

Idazlea: Inazio Mujika Iraola. **Ilustratzailea:** Maite Gurrutxaga Otamendi. **Argitaletxea:** Erein.

Europa iparraldeko herriren batetik helduko da Hans. Zain dago arkupeetan bere igel lagunarekin. Atertzean, plazara atera eta biolina jotzen hasi da, igela dantzan lagun duela. Jendea hurbiltzen hasiko da jakin-minez; gutxi batzuk hasieran, gehiago gero, gehiago, gehiago...



'Hala bazan, hala ez bazan...'

Egilea: Joseba Aurkenerena Barandiaran. **Argitaletxea:** Maiatz.

Ipuin bilduma bat ondu du Joseba Aurkenerena Barandiaranek Maiatzek argitaratutako lan honetan. Hogei bat kontakizun dira, Euskal Herriaren historian murgilduko dutenak irakurlea, «ahantziak diren gertakari zenbait molde atseginean» emanda.

Atseginezko irakurketaren bila

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Tamaina handiko album ilustratua da (29 x 24 cm), alai, argia eta ezusteko bete, azaleko irudiak ongi baino ongiago aditzera ematen duen gisara.

Zabaldu eta irakurtzen jarrita harritu egiten du letra tamainaren handitasunak, dena proportzioz ohikoa baino handiagoa da liburu honetan. Zergatik?

Goazen, poliki-poliki. Liburu lau baliabide hauei begira aztertuko dugu: umorea, intriga, kate-ipuinen egitura errepikakorra eta konposizioa.

Azal dezagun, lehenik, zer eman nahi dugun aditzera konposizioa aipatzean. Apur bat gorago letraren tamaina ezohikoa-

rekin harritu gara –ez alferrik–, eta honi gehitu behar zaio ilustrazioetan agertzen diren animailen tamaina eta kokapena orrial-



'Arrautzan'

Idazlea eta ilustratzailea: Emma Lidia Squillari. **Itzultzailea:** Xabier Olarra. **Argitaletxea:** Pamiela Kalandraka.

deetan. Testuak eta irudiak atzealde zuri baten gainean ezarri dira, elkarrekin pilatuta bezala, hobeto esanda: puzzle bateko piezak bezala. Eftekua harrigarria lortzen du egileak elementuen antolakuntza honekin, izan ere, orrialde guztietan asetasun sentipen bat dago, elementu guztien artean batasun bat osatuko balute bezala. Zeren batasuna, ordea?

Lehen orrialdean elkarren oso desberdin diren hamabi arrautza aurkezten zaizkigu. Animalia espezie askotarikoak dira –narrasti, hegazti eta ugaztunak daude tartean–, eta unibertso oso bat ordezkatzeko ari direla ematen du. Nolabait, guztia ordezkaritza bihurtzen dira orrialde-bikoaren azalerak (ezker-eskuin dauden bi orrialdeak): habia dela, esparrua dela, edo zuk nahiago duzun zer absolutu hori dela.

Katean dauden ipuinetan gertatzen den antzera, piztia hauek guztiak segida bat osatzen dute, banan-banan protagonista izateko pronto. Baina zeren protagonistak?

Hona intrigaren papera istorioan. Piztietako bat narratzailea da, baina ezin zehaztu daiteke zein den, gutxienez kontakizunaren lehen herena baino lehen.

Ordurako antzematen hasita egongo gara pertsonaia desagertzen ari direla, banan-banan, zeren nahiz eta orrialdea beti dagoen bete, gero eta gutxiago gelditzen dira. Une batetik aurrera, galdera aldatu egiten da, *hiltzaile*-narratzailea nor den argituta, baina jolasak jarraitzen du, nor jan duen (eta nor jango duen) zehaztea bihurtzen delako jolas. Orrialdeetan atzera joatera behartuko gaitu, eta ilustrazioetan arakatzera, faltan dagoen animalia zein den izendatzeko. Begira genezake hiltzailearen sabelaren forma, baina, Printze Txikiaren istorioan bezala, itxurak engaina gaitzake. Eta honek hurrengo puntura garamatza: umorea.

Kontakizun bihurria dela esan genezake. Umorea darie pertsonaien irribarreei, marrakzi sinpleekin, kolorearen bidez nor den nor zehatz bereizita... Esan liteke alderdi grafikoak irakurlearen konplizitatea bilatzen duela, beste ezerekin gainetik irakurketa gidatzeko, atseginezko irakurketaren bila.

Guztiak bat lan eraginkorra burutzea lortu du egileak, frogatuaz, nire ustera, betiko erremintekin sor litezkeela obra berri on askoak.